



## ESPAINIA PLAZAKO BILDUMAGILEEN AZOKAN ERAKUSTOKIAK JARTZEKO

### DEIALDIAREN OINARRIAK 2023-2027

#### 1. XEDEA

Bilduma-gaiak trukatzeko, erakusteko eta saltzeko jarduera baimentzea, horretarako lizentziak emanaz, igandeetan Espainia plazan, **4 urterako, 2023ko martxoaren 1etik 2027ko otsailaren 28ra.**

#### 2. TRUKATZEKO, ERAKUSTEKO ETA SALTZEKO GAIAK

Aisia eta kultura arloko bildumazaletasun ludiko eta kulturalarekin izango dute zerikusia; zehazki, honakoak:

- a. Filatelia eta numismatika
- b. Paperezko gauzen bilduma: Postalak, kromoak, puruen eraztunak, bigarren eskuko liburuak
- c. Txapak, giltzatakaok
- d. Binilozko diskak eta kaseteak.
- e. Mineralak, fosilak eta oskolak.
- f. Antzeko objektuak eta erabilitako gauzak, ezaugarri eta neurri aurrekoen antzekoak; berariazko baimena beharko da horiek saldu ahal izateko, zein saldu nahi diren objektuak azokaren izaerarekin bat datozen edo ez kontuan hartuta emango edo ukatuko den.

#### 3. TITULARREN BETEBEHARRAK

Ezin izango da baimen bat baino gehiagoren titularra izan, baina posible izango da postu bakoitzeko gehienez bi pertsona akreditatzea, pertsona fisikoen kasuan.

Baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak bakarrik izan ahalko dira baimenaren titular:

- Adinez nagusia izatea.
- Pertsona juridikoak izanez gero, legez eratuta egotea.



- Administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna izatea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarri bezala.
- Europar Batasunaz kanpokoak badira, egoitza-baimena eta norberaren konturako lan-baimena (sozietate kooperatiboetako kideak badira, besteren konturako lan-baimena) izan beharko dute.
- Salgaiek bete beharreko araubideak xedatutako baldintzak eta betekizunak betetzea.

#### 4. ERAKUSTOKIAK JARTZEA

Mahai edo astotxoetan jarri ahalko dira bilduma-gaiak, inoiz ez lurrian zuzenean, plazako arkupeetan eta horietako barruko ormarik atxikiak; gehienez metro bat zabal eta bi metro luze izango dira erakustokiak, eta etxebizitzetako zein irekita dauden negozioen sarbidea ez dute oztopatuko.

Edonola ere, debekatuta dago Udaletxeak hartzen duen Espainiako plazaren aurrealdeko eskuin alboan –non Udalaren turismo bulegoa dagoen– saltokirik ipintzea.

Gasteizko Udalak egun jakinetan saltokiak ez jartzeko agintzeko eskubidea izango du, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik plaza beste zerbaitetarako erabili behar bada. Halaber, merkatuaren antolaketa eten, birkokatu edo aldatzeko eskubidea gordetzen du, araudiaren arabera.

#### 5. ORDUTEGIA

Erakustokiak igande goizetan jarri ahalko dira, 10:00etatik 15:00etara.

#### 6. INSTALAZIOA BAIMENTZEA ETA LIZENTZIA ESKABIDEA

Udalak emango du saltokia jartzeko baimena.

Lizentzia pertsonal eta besterenezina izango da, eta titularrak ez beste inork burutu ahalko du jarduera.

Lehenengo deialdi publikoa egingo da eta interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek dagokion eskabidea aurkeztu beharko dute 2023ko **urtarrilaren 9tik 20ra bitartean**, Gasteizko Udalaren herritarrei laguntzeko honako bulegoetan:

- Udalaren bulego teknikoak, Teodoro Dublang Margolariaren kalean; 08:30etik 14:00etara.



- Herritarrei Laguntzeko Bulegoak (HLB)
- Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>
- Telefono bidezko argibideak: 010 eta 945-161100.

Eskaera postaz Udalaren Bulego Teknikoetara —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea; 01008 Vitoria-Gasteiz— bidaltzen denean posta ziurtatuz egin behar da. Bidalketa Postetxeko bulegoan zein egunetan egin den justifikatu beharko du eskatzaileak, eta egun horretan bertan jakinarazi beharko dio eskabidea egin duela Gasteizko Udalaren Merkataritza Zerbitzuari, posta elektronikoz ([comercio@vitoria-gasteiz.org](mailto:comercio@vitoria-gasteiz.org)), betiere otsailaren 1aren (barne) aurretik. Jakinarazpenak balioa izan dezan, jasota geratu beharko da mezua jaso dela, baita komunikazioaren data eta eduki osoa ere, eta era frogagarrian identifikatu beharko dira igorlea eta hartzailea. Bestela, baliteke eskabidea ezestea.

Saltokia eskuratzeko eskabidea egiten delarik, deialdiaren oinarriak onartzen direla esan nahiko du.

Pertsona bakoitzeko eskabide bat bakarra onartuko da. Bat baino gehiago aurkeztuz gero, soilik Udal Erregistroan lehenik sartu dena hartuko da aintzat.

Lizentziak indarrean dauden bitartean ere eskaera berriak onartu ahal izango dira, eta horiek itxaron-zerrenda batean sartuko dira. Kasu honetan, itxarote-zerrendako ordena eskaera udal erregistroan sartu den eguna/ordua/minutua jarraituz zehaztuko da.

## 7. NAHITAEZ AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Horretarako interesatuek eskaera aurkeztu beharko dute, zein objektu saldu nahi duten adieraziz, baita honakoak ere:

1. **Bildumagileen azokan salmenta ibiltarian aritzeko eskabide-orria**, non Gasteizko Udalerrian salmenta ibiltaria arautzeko ordenantzako eta deialdi honetako betebeharrak betetzen direla adieraziko baitu.
2. Baimena eskatzen duen pertsonaren **nortasun-agiriaren fotokopia**, edo Europar Batasunaz kanpokoen kasuan, **lan-baimena eta egoitza-baimena** indarrean direlarik, eta atzerritarren arloan legeak dioenarekin bat etorriz.
3. Pertsona juridikoen kasuan, eratze eskrituren fotokopia; eskatzailearen ordezkatzeko ahalmena jasotzen duen agiria eta Identifikazio Fiskalerako txartelaren fotokopia.



4. Merkaturatuko diren produktuen **azalpena** eta produktu horien hiru **argazkiak**.
5. 2.f atalean adierazitako objektuen kasuan, hiru argazkiak aurkezteaz gainera, memoria bat gehitu beharko da (l. eranskina), non azalduko den objektu horiek bilduma gisa gordetzeko duten balorea. Baztertu egin ahalko da eskakizun hori betetzen ez duen eskabide oro.

Gasteizko Udalarekin inolako zorrik ez izateko baldintza bete beharko da (ofizioz egiaztatuko da) lizentzia berri ahal izateko.

## 8. SALTOKIAK ESLEITZEA

Gehienez 24 saio egin ahal izango dira.

Erakustokiak baino eskabide gehiago badago, eskabideetan dauden objektuen merkataritzazko mixaren balioztapena egingo da, azoka bisitariarentzat erakargarriago egite aldera. Irizpide hori erabakigarria ez bada, eskabideak zozketari erreparatuko zaio.

Edonola ere, lehentasuna izango dute sailkapen hauetan sartzen diren objektuek:

- a. Filatelia eta numismatika
- b. Paperezko gauzen bilduma: Postalak, kromoak, puruen eraztunak, bigarren eskuko liburuak
- c. Txapak, giltzatakoak
- d. Binilozko diskak eta kaseteak.
- e. Mineralak, fosilak eta oskolak.

Ohiko kokapenaren plana erantsi da.

Eskatzaileek gehienez ere **3 toki hautatu ahal izango dute, erantsitako planoak kontuan hartuta**, eta eskaera-orrin markatuko dituzte saltoki-zenbakiak nahi dutenaren arabera. Aukeratutako lanpostu-zenbakia ohiko kokalekuan nahiz behin-behinekoan aplikatuko da.

Saltoki bera eskatzaile batek baino gehiagok nahi izanez gero, lehenengo erreparatuko zaio aurreko deialdian emandako kokapenarekin daukan hurbiltasunari; bigarren, merkataritzazko sortari, eta azkenik, zozketari. Eskatutako postuak esleituta egonez gero, eskatutako saltokitik hurbilen eta eskuragarri daudenak esleitzeari ekingo litzaioke.



Kokalekurako preferentziarik adierazi ez diren eskabideetan, saltokien esleipena egingo da zenbakien hurrenkera naturalari jarraituta. **Dena dela, Udalak bere gain izango du saltokiak birkokatze eskubidea, eskaeraren eta saltokiak antolatzeko beharren arabera.**

Deialdian jarritako baldintzak bete arren erakustokirik lortzen ez duten eskabideak itxarote zerrenda batean jasoko dira, leku librerik geratzen bada ere. Bi irizpideri erreparatuko itxarote zerrenda osatzeko: lehenik merkataritza-nahastura, eta bigarrenez (baldin eta lehena erabakigarria gertatuko ez balitz), zozketa.

Eskabideak deialdiaren epeetik kanpo aurkeztuz gero, eta deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, indarrean dagoen itxaron zerrendaren amaieran pasatuko dira.

**Otsailaren 21etik aurrera**, jendaurrean egongo dira esleipendunen zerrendak, **010** argibide telefonoan (**945 161 100** Gasteiztik kanpotik deituz gero) zein udalaren web gunean ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)).

## 9. PREZIO PUBLIKOAK

7.1 ordenantza fiskalaren ("Erabilera publikoko lurretan jarritako saltoki, barraka, salmenta-etxetxo, ikuskizun edo jolas instalazioen tasak"), 7. epigrafean jasotako prezio publikoa –zein 2022an 120,97 €-koa izan zen– ordaindu beharko du eskatzaileak lizentzia eskuratu baino lehen.

Prezio publiko hori ez da itzuliko eskatzailea agertzen ez bada, arazo pertsonalak edo klimatologikoak direla eta

## 10. LIZENTZIAK JASOTZEA

Lizentziak Udalaren Bulego Teknikoetan jasoko dira (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea), 08:30etik 14:00etara, **2023ko otsailaren 22tik otsailaren 28ra bitartean (biak barne)**.

Bide publikoa okupatzeagatik oinarri hauetako 9. puntuan adierazitako ordaindu beharreko tasa lizentzia jaso aurretik ordaindu beharko da.

## 11. BAIMENAREN IRAUPENA

Lau urterako iraupena izango du lizentziak, 2023ko martxoaren 1etik 2027ko otsailaren 28ra bitartean.



Emandako baimen guztiak pertsonal eta besterenezinak izango dira, eta Udalak horiek balio gabetzeko eskumena izango du horrela justifikatzen duten interes orokorreko arrazoiak daudenean.

Lizentziari uko eginez gero, idatziz adierazi behar da.

## 12. BETEBEHARRAK

Esleipendunek erraz ikusteko moduko tokian jarriko dute Udalak emandako baimena, bai eta Gasteizko Udalaren agintaritzaren agenteek eta kontrolatzaileek eskatzen dutenean egiaztatzen utziko ere.

Bildumagileen azoka bukatutakoan erakustokia egon den lekua eta ingurua garbi utzi beharko dute saltzaile ibiltariek.

Baimendutako pertsonak salmenta ibiltariko azoketara joan beharra dute, eta joan ezean, behar bezala justifikatu beharko da.

Azokara joan ezin izatera (ezinbesteko kasuan, dela gaixotasun larriagatik edo arrazoi justifikatuagatik), hori azaltzen duen idazkia aurkeztu beharko da Gasteizko Udalaren herritarrei laguntzeko bulegoren batean, posta elektronikoz (comercio@vitoria-gasteiz.org helbidera), edo egoitza elektronikoa (<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>), 15 eguneko aurrerapenarekin, hori posible balitz, edo, azokara joatea galarazi zuen gorabehera gertatu zenetik 15 eguneko epean, gerora gertatutako arrazoiak badira, baina beti ere hura justifiukatzen duten agiri guztiak aurkeztuta.

Inolaz ere ezin izango da 2. oinarrian zehaztutako artikuluek apartekorik saldu. Zehazki, guztiz debekatura dago horiek eduki edo saltzea berariazko murrizketa administratiboen menpe dauden objektuak edukitzea edo horiekin trafikatzeari.

Edonola ere, titularren erantzukizuna izango da salgai dauden produktuen jatorri zilegia bermatzea, bai eta artikulua mota bakoitzari aplikatu beharreko araudian jasotako aginduak betetzea ere.

## 13. KONTROLA ETA EGIAZTAPENA

Gasteizko Udalak edo ordezkatzeko duen erakundeak behar diren kontrol ekintzak egingo ditu, lizentzia jaso duten saltokiak behar bezala erabiltzen direla eta horietan bideratzen den jarduerara ebatzen honetan, kaleko salmenta arautzeko ordenantzaren eta aplikagarri zaizkion gainerako arauetan xedatutakoarekin bat datorrela bermatze aldera.





- Baimena galtzea dakarren zigorra ezartzen bada.

## 16. KONFIDENTZIALTASUN-KLAUSULA

Gasteizko Udalaren Ekonomia Sustapena Enplegua, Merkataritza eta Turismo Sailak eskatzaileei jakinaraziko die haien datu pertsonalak fitxategietan sartuko direla. Datu pertsonalak babesteari buruzko 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016 apirilaren 27ko, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, betetze aldera, udalaren kudeaketa lanak egin ahal izateko, eta horren aurka, aipatu Legeak aitortzen dituen eskubideez baliatu nahi izanez gero, Gasteizko Udalaren argibide bulegoetakoren batera jo daitekeela. Deialdia ebatzi ondoren, Gasteizko Udalaren iragarki-taulan nahiz web-orrian argitaratu ahal izango dira emaitzak.